D.ª [redacted] 4.ª d Cuaresma. Quis ex vobis arguet me &c.

Norc zuben artean arguituco dau nigan pecaturen bat? Edo norc probatuco deust niri, jauri nacela culparen batean? Onela verba eguin eustela Jesuxtoc Judegubai, dio gaurco Evangelio Santubac. Eta eguia esaten badot, cegaitic sinistcen ezdidazube? Jaincoaren aldecoac diran gustiac aditcen ditube Jaincoaren verbac, eta zubec ezdituzube aditcen, cegaitic etzaren Jaincoaren aldecoac. Adituric verba onoc Judeguba Jesuxtoren agotic, asi ciran injuriatcen ta blasfemiac esaten Jaunaren contra. Azquenic ecuinic Judeguba, ecin resistencia edo contraric eguin eutcela Jesuxtoren Jaquituriari, ta bere arrazoe indartzubaquin convencidurie guel ditcen cirala, artu cituben arriac, blasfemia ta beste verba madaricatu arogaz ecin calteric eguin eutcenian Jaunari, baña Jesuxto, arteraño aco guztiac paciencia miragarri bategaz sufriturie, escutatu jaten; Ecin andia zan N, C. Judegu oien gaitaqueria! † Baña, cer? Judeguba bacarric ete dira, Jesuxtori arrica eguiten deutcenac? Combat Christau ete dira, Jesuxtori mundu onetan arrica eguiten deutcenac! Bai, Nc., arrica eguiten deutce araco euren blasfemia, ta juramentu gurumeroaquin bere izen Santua desonrratcen dauben christaubac; arrica eguiten deutce, deshonestidadeco vicioan sarturic pecatuco estadu negarganritic urten gabe vici diran christaubac, arrica eguiten deutce, araco lagun proximoari bere faman icutu gabe conversacioric ecin eugui dauben christaubac; azquenic arrica eguiten deutce beste pecatari guztiac; | Baña beste aldetic acorda zaitece Jesuxtoren paciencia miragarri agaz, gaurco Evangelioac dioan Judeguben blasfemia izugarriac aditcean. Paciencia au da gaiz guztien con

traco erremedioa; erremedioac dira modu ascotaricoac; batzuc dira animac sendatceco, ta beste batzuc dira, gorputzai osasu na emoteco; Baña gaur nic emongo deutzubedana, da gaitz genero guztietatic osaguetaco; beste erremedioac gueixoari emo teco ascotan ichain bearjaco demporari, ta ocasioari; ascotan berez ona izan arren, ecin emongo jaco gueixoari, cegaitic disposicio ta beardan indar bague arguitcendan, baña gaur emotera noian erremedioarentzat, ceindan Paciencia, eztago dempora charric; guztiac dira onac, ta ala dempora ta ocasio guztietan artu daiquezube batere bildur gabe; nic seguratcen zaubet erremedio onen efecto edo eguiteco onaz; erremedio Jaungoicozcoa da pacienciac emoten daben erremedioa; urre, ta cidar gabe emotendan ta erosi daiqueguun erremedioa; onec eztau iñor ere penatcen; contrara consolatcendau edocein, indartcendau, ta emon eraiten deutzo animari frutu mira garriac, Sn Lucasec dioan leguez. Zuben onac, bada, N, C, era bagui eraiten deust pacienciaren gañean gaur verba eguitea, eta ala aditcera emongo deutzubet, cein erremedio bearra dan, ta ce motivo andiac daucagun, paciencia izateco.

Espiritu Santuac eracusten deuscu Sn Pabloren agotic pacien ciaren beartasuna, alcanzatuco badituguz Jaincoac esquini deuscun betico premioac. Egui au ezagutceco, eztogu beste gauzaric bear, consideratcea baño, cer eguin beardogun, Ceruco Gloria ta Santu ben zoriontasuna logratceco. Ceruco gloria logratuco badogu, gorde bear dituguz Jaincoaren leguezco mandamentu Santuac, eta bost elizacoac, vencitu bear dituguz gure salvacioaren etsaiac; domau bear dituguz pasio ta inclinacio charrac; cumplitu bear dituguz gure estaduco obligacioac; sufritu bear dituguz, murmuratu ta quejatu gabe, viciza onetaco pena, curce, ta naigabeac, ta azqueneic perseveratu beardogu negue gogor,

ta triste onetan azqueneco fineraño; eta eztago dudanic, ecin au guz
ti au eguin gueigue paciencia gabe. Eta ezta aro mandamentu batzuc
gordetcea, guztiac eta osoro gorde bear dira, Santiago Apostolubac esaten
deuscun leguez; eta cembat mandamentu genera ta cein neguetzuac ar
quitcen diran Jaincoaren legue santuan! Armatu batec bere etsaiac,
parcatu injuriaric andienac, on eguin, gaitz eguiten dituzenai,
oracio eguin perseguitcen gaubenac gaiti, ichi alde batera araguia
ren atceguintarun guztiac, erreruncciatu bere burua, crucificatu
bere gorputza penitenciaren videz, Jesusekin calvarioco mendian
jarraitceco, ce indarrac, ce viotza, ce paciencia bear ezta onetaraco?
Baguit Jaincoaren servicioan, socorru, gracia, ta consuelo an-
diac dirana; baña ala ere trabaju ta pena andiac sufritu bear
ditugu, cegaitic, Ceruco videa, guztiz estuba dala; ta indar
eguin beardogula santuco bagara, dio Sn Pabloc.

Onegaz gañera, Ceruco gloria irabazteco; venitu bear ditugu
gure animaren etsaiac. Ta ce guerra triste ta icaragarria au,
N. C! Demonioac empleatcen ditu bere indar guztiac, eguiten dan
alegrina guztia, gu galtceco, inguratcen gau Leoe amorratuac
leguez, tragatceco, dio Sn Pedroc; Ce tentacio indartzuac etsai one-
nac? Ce pensamentu icaragarriac ifintcen deuscu buruan? Ce
deseo gaistoac biotzian? Mundua beste aldetic cegaz valiatcen ezta,
gu galtceco? Ezquintcen deuscu ondasun guzurrescoac, gure viotzac
beraganatceco, gu engañatu ta itzutceco; ce indar eguin bear
eztogu sugetetaco gure viotzen arrotasuna, gure colera, ven
ganza, ta envidiaren movimentuac, gure gorputz gaistoac es-
catcen dituban jan ta edan desordenatuac, gure araguiaren deseo.
ta movimentu ichuriac? Cembat persona jausten dira tentacio
oietan pacianciaren faltaz? Ta cembat arquitcen dira, euren
buruen esclavo eguinic, peleatceco viotzaren faltaz! Betico Coroia
irabazteco, sufritu bear ditugu, murmuratu ta quejatu gabe,

vicizaco pena, ta trabajubac: Ce estadu tristea guizonarena lurraren gañean! Bere biotzari beguiratcen badeutzagu; ce tristerac, ce inquie turac, ce bildurrac! Bere gorputcean; ce miseriac, ce enfermedadeac, ce nequeac! Airiac, euriac, otzac, beruac atormentatcen gaube; la nac, nequeac, gure estaduetaco ocupacioac eztceuscube emoten instante bateco descansuric: baña sufritu bear dituguz paciencia, salvatuco bagara, ta sufritu bear ditugu azqueneco fineraño. Azqueneraño perseveratcen daubenac salvatuco dira, dio Jesucristoc: ezta asco ondu egun, ta urte batzuetan sufritcea; sufritu bear ditugu viciza guztian. Ta nore aitortuco eztau onetaraco pacienciaren biartasu na? Baña cembatec perseveratcen daube onela? Ascoc ondo abiatu arren acabatcen daube gaizqui, ta galtcen dira pacienciaren faltaz. Ezagutu eguizube N.C. cein bearra dan paciencia christauben obligacio aguin cumplitceco; ta ezta onetaraco bacarric bearra paciencia. Munduba gobernatceco carguba duenac ere ecin ondo governatu daiguic paciencia gabe. Paciencia gabe ecin aguindu deitegue ondo, ezta obedecitu ere; paciencia gabe eztago Alcate onic, ez guraso onic, ez adisquide onic, ez ubazaba onic, ez servitzalla onic.

Onegaz gañera beguira, cein contraracoac diran paciencia duen ta ez duen guizon biren suerteac. Paciencia dabena, beti dago sosegu onean, bere animaren jabe da, dio Jesucristoc; munduco guertaera oquer guztiac eztira asco, guizon au alborotatceco, ta animaco baquia galdu eraiteco; baña pacienciaric ez duana, beti dago alborotauric, eztauco baqueric, ez beragaz, ta ez besteaguin, inquietatcen da, atormentatcen da, guerratcen da guztiacgaiti, ezteut zo parcatcen Jaincoari berari ere, bere inquietuaren motivoa Jaincoa baliz legues, ta ez bere pacienciaren falta. Ta ce maldicioac, ce de balizc loguez, ta ez bere pacienciaren falta. Ta ce maldicioac, ce de seo dongac naipaberic chiquiena guertcen jacoñan! Desesperat cen dau, ta ezta contentatcen, bere anima Infernuaren

ondarzean Santu artean. Oneic dira N. C. pacienciaren faltac guizonari carriatcen deutzan desgraciac: Icusi daigun, bada, orain ce interesac ta ce irabazteac datorquiguzan paciencia izatetic.

Orainguiño emon deutzubedan arrazoiac gañeran, motivo asco ditugu paciencia izateco. Jaincoac berac aguindu eusun virtute onen sabe izateco. Jaincoac gura dau, santificadu gaitecen, ta cumplitu daiguzan gure estaduetaco obligacinoac, ta ezta posible, pacienciaz gabe au logratcea. Ala aditcera emoten deuscu Escritura Sagradubac toqui ascotan. Jaincoac berac aditcera emoten deuscu au berau, gugaz eguiteco eguiten dabenagaz; bada ascoc mundu zabalean gure pecatuen videz merezi badogu ere Infernuco su gaiz izatea, beguira ala ere, ce pacienciaz ichaiten deuscun aren Divina Magestadeac, gueure becatuen penitencia eguitera movidu gaitecen. Jesu Cristogaz Santuac ere, ce exemplu emon euscuben, paciencia billatu gueiaro. Jesu Cristo gure Jauna, ce miseria gorrirac entregatu zan gugaiti? ce penac, ce trabajubac, ce nequeac irago cituban? Nolaco infuriac, nolaco menospreciac, ta persecucio gogorrac? Azqueniç ce eriotza cruela? Ta au guztian nolaco pacienciaz: ez eben bere aotic verba bat ere atara, ta ez eben inquietuaren señalerie chiquinena ere emon. Paciencia au sarraitu daigula, esaten deuscu Jesu Cristoc berac Sn Mateoren aotic. Discite ã me. Beguira ere Santuac emoten deuscuben exemploac: Jacoben Semo Josec jus tuac pacienciaz eroan eben, vengatu gabe, bere Anaien gogortasu na ta crueldadea. Moises batec berrogueí urte baño gueiagoan pacienciaz eroan cituban Israeltarren gogortasun, erresputa gaisto, ta murmuracioac. Ta cer esango dogu Job Santuaren pacienciaren gañean? Demonioac empleatu becben ere bere malicia, ta indar guztia Patriarca Santu onen contra,

alperric necatu zan, bada ezjacon aditcen pacienciaren Espi
llu eder oni berte verbaric, ezpada, Jaincoac emon eustan osa
suna, ta ondarunac, berac quendu deust, izan dedilla bada
alabatua bere izen santua. Guerragoco demporetan; pacien
ciaren ce exemplu ederrac dauzcagu N.S. Apostolu santuac; no
laco trabajubac irago cituben, Jesu Cristoren Relijio Santua fundat
cen? Nolaco persecucioac? Martiri santuac ce tormentubac?
Ce gose-egarriac, Jesusen amorioz, mendietaco aitz zuluetan
bere viciza irago euben Santubac? Nolaco paciencia aguentcen
deuscube, quejatu gabe. Nolacoa, miseria ta pobrezan vici
diran Jaincoen adisquideac? Baña oneic gustioc baño guiago
icaratu bear gau, becatariric andienac aguentcen dauben pacien
cia, paciencia Diabruzcoa, baña eguiaz guertatcen dana? Pe
catariac cembat demporan egoten dira becatuban sarri, eta ala
coric eguin ezpaleuben leguez, eta euren vicizaren jabe balitzan
leguez? pecatuti urten baque? Baña zuben Zorigaistocoac egu
nen batean; ceñetan urteric guchien dozubenian, contu artuco
deutzuben zeuben Jaincoac: Baña oraingoiño aditu dozuenac,
jarraitu eraiten badeutzube pacienciaco virtutea; cer esango dozube,
virtute onec animari ecarten deutzan interes ta irabaciac adit
cean? Guztiz miragarriac dira bada virtute onen frutu edo
efectoac. Ecin esango deutzubet andiagoric, ezta ere modu obean
S.n Cipriano̍c dioan baño. Dio bada Santu onec, anima salvatceco,
eztagoala vide importancia andiagocoric virtut pacienciaco virtutea
baño. Pacienciac, dio berriz, eguiten gau Jaincoaren antzecoac,
Jaincoaren adisquide maiteenac. Pacienciac itotcen ditu colera,
ta venganzaren movimentuac, guiatcen dau gure espiritubá,
ta conservatcen dau gure arteco baquia. Mundu guztia dabil
baquearen billa, eguiazco baquetic urrineti badabiltza ere.
Eguiazco baquia bat da, ta da Cristau eguiazcoai dagoquiena,

ta onen izate guztia dago, gure vorondatea Jaincoare
naz bat eguitean, eta au da Zeruraco Señale claruba
azqueníc paciencíac sartcen dau gure vioitzetan confianza
oso bat, Jaincoac premiatuco dituelaco eguinen batean
orain eroaten ditugun neque ta trabajuac. Ala are
guratcen deusu Espiritu Santuac S.n Pabloren aotic.
Pacienciac sartcen dau gugan, dio Apostolu Santu onec,
esperanza, ta ez edocein esperanza, espada, esperanza
eguiazco bat. billatu daiquegu bada motivo indartzuago
ric, pacienciaren jabe izatea descatceco? Pacienciaren
vider, dio S.n Gregorioc, logratu eben Santuac betico
gloria. Eguin daigun bada alegaiña, Jaincoaren doi
au logratceco, onegaz seguratuco dogu, Jaincoac pacien
cia dauquenai aguindu deusten betico gloria. Amen.

MAN 683

FUNDACIÓN
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA